

AHANZTURAREN
AMILDEGIAN

Biblioteca Municipal de Ermua / Ermuko Udal Liburutegia

AHANZTURAREN AMILDEGIAN

Gaur ordulariaren hotsak

gaua ez du hautsi,

gauaren itzal hotzak

ene barrenean darrai,

mezpretxuz so, temati,

egunaren argiari...

Itsasertzeko lapak bezala

itzal hitsa zait itsatsi,

nire arimaren zazpi ertzak

erraz ditu erauntsi,

argi-izpi oro iraungiz

nire izatea du bazterretsi...

Nituen amets bakanak

banaka ditu irentsi,

espazio urruneko zulo beltzak

herensuge asegaitza dirudi,

ehortzitako gomuten goseti

amets berrien egarri...

Zurrunbiloak xurgatu nauelarik

maldan behera naiz hegalari,

gorputzez nahiz arimaz biluzik

eroraldian gogoan dut Aresti,

gurari oro aguro galdurik

mirari baten zain adi-adi...

Eremu iluneko lazturak

hezurrak dizkit inarrosi,

Stephen King-en irudimenak

oraino badu non ikasi:

bere eleberrietako pertsonaiak

ondoan nahi nituzke ikusi...

Amildegiaeren amaieran larri

Laboaren ahotsa dut igarri:

sorterria maite duen niniak

ezin duela begia utzi

erroi baten mokoan izan ezik,

garrasi egin du isildu aurretik...

Laboaren ahotsa itzali denean

haize-izoztuak arnasa dit ostu,

elur-maluta batek era berean

eskuin masailean dit musukatu

eta argi-eztanda baten distirapean

malkar-hondoa da argitu...

Lipar batez maindire zuriz estaliak

ikusi ahal izan ditut ia bazter guztiak,

tronpetariak diruditen zitori horiak

tarteka-marteka ere ertzetan jarriak

eta erroi lepezuriak maindire gainean antza

blues saminaren soinuan dantzan...

Argitasun aldi laburraren ostean

izuikararen armiarmak

- hots, itzak hitsak -,

berriro nau atzeman bere sarean,

erroi ipurterreak arras hurrean

ditzaket hauteman

ene begi-niniak ebatsi guran,

une egokienaren zain-zelatan...

Hotza, hotza daukat bihotza,

izoztua ene arima antzua....

Laboaren ahotsa, neure ahoarena

izan ote zitekeen otu zait tupustean,

ene eskuin masaileko elur-maluta

emazteak emandako musua

– azkena beharbada, agian –,

eta argi-eztanda bidean hain ohikoa den

- urratsez-urratseko hobi-bidean, bederen -,

azken buru-argitasun aldia

izan zitezkeela gogoetatu ondoren...

Lurrin gozoa darioten zitori horiak

- ene emazteak gogokoen dituen liliak -,

nork ekarriak izan litezkeen jakinmina

ase nahian naizen bitartean,

erietzeko erizainak harat-honat

- larrialdi-zerbitzuan omen nago, nonbait -,

jirabiraka hegan dabiltzan hegaztiak

- erroi lepazuriak beharbada, agian -,

diruditela dut hausnartu...

Haize-izoztuak osturiko arnasak

ez du itzulerako bidea aurkitu

eta ondorioz entzumen ausartak

- hondoratuz doan itsasontzian -,

kapitainaren zeregina du hartu:

“Gogorra da gero Alzheimerra!”

azken hitzak ditu atzitu,

erroi lepazuri baten eztarritik ihesian...

Agur Euskalerrria, ene aberria,

agur haran eta basoak,

agur Aresti eta Laboak!...

Agur ene emazte maitagarria

eta seme-alaba zintzoak!...

Banoa, irri batekin ahoan...

Zuen izenetaz nekez oroitzen naizen arren

nire azken txanpako maite-surik eza

mesedez ezabatu dezazuen eskaria

gogoaren zilbor-hesteaz dizuet luzatzen...

Oroimenaren kutxan gorde ezazue ordea,

elkarri oparo oparituriko pozaldiak...

Agur ene emazte eta seme-alaba alaiak!

Agur beti-betirako! Agur t'erdi!...

AMILBURU